

Eskola-liburutegia eta Irakurzaletasuna Minorra



**Ikaslearen gida 6. modulurako
Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako Graduak
2019-2020**

0. AURKIBIDEA

1. TESTUINGURUA.....	2
2. EGUTEGIA.....	2
3. MINORREKO IRAKASLE TALDEA.....	3
4. EZAUGARRIAK.....	3
5. MINORREKO DIZIPLINARTEKO LANA.....	9
6. JARDUERA OSAGARRIAK.....	10
7. LAN-HIZKUNTZAZ.....	11
8. MODULUKO BIBLIOGRAFIA.....	11

1. TESTUINGURUA

Ikastegia: Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskola
Minorraren izena: Eskola-liburutegia eta Irakurzaletasuna
Ikasturtea: 4. maila Lauhilekoa: 1.a eta 2.a (ikasturte osoa)

Gida honetan EHUko ikasleak Vitoria-Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskolan irakasten den Haur eta Lehen Hezkuntzako Graduako seigarren moduluari dagokion (*Eskola-liburutegia eta Irakurzaletasuna*) diziplinarteko lanaren oinarriko datuak aurkituko ditu. Modulu hori Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Graduaren laugarren maila osoan zehar irakasten da.

2. EGUTEGIA

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAKO K6 MODULUKO KRONOGRAMA OROKORRA	
1. astea (2019-IX-9tik IX-13ra)	Ikasgai bakoitzeko aurkezpenak eta egin beharreko lanen azalpenak
2. astea (2019-IX-16tik IX-20ra)	
3. astea (2019-IX-23tik IX-27ra)	Beatriz Egizabal ipuin kontalariaren hitzaldia
4. astea (2019-IX-30etik X-5era)	
5. astea (2019-X-7tik X-11ra)	Minorreko Lanean oinarri izango den liburuaren aukeraketa (Talleres de lecturako lanak)
6. astea (2019-X-14tik X-18ra)	Karla Fernandez de Gamboaren hitzaldia
7. astea (2019-X-21etik X-25era)	Tolosako TOPIC museora txangoa goizean
8. astea (2019-X-28tik X-29ra)	
9-18. asteak (2019-XI-4tik 2020-I-24ra)	PRACTICUM III: eskoletako egonaldia
19. astea (2020-I-27tik I-31ra)	
20. astea (2020-II-3tik II-7ra)	Patxi Zubizarreta idazlearen hitzaldia
21. astea (2020-II-10etik II-14ra)	
22. astea (2020-II-17tik II-21era)	
23. astea (2020-II-24tik II-28ra)	HGL eta Irakurzaletasun ikasgaietako aurkezpenak
24. astea (2020-III-2tik III-6ra)	
25. astea (2020-III-9tik III-13ra)	Literatur lantegietako eta Haur antzerkiko antzezpenak

3. MINORREKO IRAKASLE TALDEA

Irakasgaia	Irakaslea	Telefonoa	Posta elektronikoa	Bulegoa
<i>Haur antzerkia eta dramatizazioa</i>	Amaia Alvarez Uria	945014459	amaia.au@ehu.eus	1-11
<i>Biblioteka eta irakurzaletasuna</i>	Asier Barandiaran Amarika	945014194	asier.barandiaran@ehu.eus	B-4
<i>Literatura tailerrak</i>	Manu Lopez Gaseni; Alexander Gurrutxaga Muxika	945014190	josemanuel.lopez@ehu.eus alexander.gurrutxaga@ehu.eus	B-6 B-8
<i>Gaur egungo haur eta gazte literatura</i>	Xabier Etxaniz Erle	945014173	xabier.etxaniz@ehu.eus	B-6
<i>Talleres de lectura</i>	Xabier Etxaniz Erle	945014173	xabier.etxaniz@ehu.eus	B-6

4. EZAUGARRIAK

4.1. Ezaugarri orokorrak

“Eskola-Liburutegia eta Irakurzaletasuna” izeneko minorra Haur eta Lehen Hezkuntzako 6. modulua izango da. Laugarren ikasturteko 1. eta 2. lauhilekoan ematen da, eta taulan agertzen diren irakasgaiak ditu:

<i>Haur antzerkia eta dramatizazioa: 6 kreditu</i>
<i>Biblioteka eta irakurzaletasuna: 6 kreditu</i>
<i>Literatura tailerrak: 6 kreditu</i>
<i>Gaur egungo haur eta gazte literatura: 6 kreditu</i>
<i>Talleres de lectura: 6 kreditu</i>

Aipatutako ikasgaiotan Minorreko Diziplinarreko lana burutu beharko da (5 kreditu). Beste moduletan bezala, 6 kredituko irakasgai bakoitzetik kreditu 1 partekatuko da Minorreko Diziplinarreko Lana egiteko (5 kreditu). Practicumak euskarri gisa funtzionatzen du, sailetako jakintzagaiekin komuna den diziplinarreko lana burutzeko, eta haren helburua minorreko irakasgaien inguruko ezagutza praktikoak eskuratzea izango da.

4.2. Edukien deskribapen laburra eta minorreko irakasgaietako gaitasunak

Eskola-liburutegia eta Irakurzaletasuna Minorraren helburua Haur eta Lehen Hezkuntzan lan egingo duten profesionalek literaturaren didaktikaren ezagutza sakona izatea da. Azken helburua irakurle iaioak, autonomoak eta kritikoak formatzea da.

Horretarako kontuan hartu behar diren alor guztiak lantzen dira Minorreko irakasgaien bitartez: haur eta gazte literaturaren historia, irakurketa eta idazketa lantegiak, irakurzaletzeko bideak, haur dramatizazioa eta eskola-liburutegia.

Hona hemen irakasgaien gaitegien laburpena:

GAUR EGUNGO HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Egungo HGLren ikuspegi orokorra; korrante nagusiak; egile eta obra aipagarrienak; HGL moderna eta literatura-kanona; HGLk haurrari euskal kultura transmititzeko eta haurra euskal kulturaren oinordeko egiteko duen zeregina.

Irakasgaiko gaitasunak:

GAUR EGUNGO HAUR ETA GAZTE LITERATURA	GAIT./MAILA				
	1	2	3	4	5
Irakasgaiko gaitasunak					
1. Irakurzaletasuna sustatzea eta idaztera animatzea	X		X		
2. Literatura-prestakuntza jasotzea eta haur literatura ezagutzea		X		X	X
3. Bakarkako eta taldeko erantzukizuna baloratzea, etorkizun iraunkor baterako			X		X

Irakasgaien zehar landuko diren gaiak:

1. GAIA – Gaur egungo haur-literaturaren eta gazte-literaturaren panorama orokorra.

- 1.1. Sarrera historikoa
- 1.2. Haur eta gazte literatura sistemaz
- 1.3. Azterketarako giltzak

2. GAIA – Joera nagusiak

1. Ibilbide historiko –labur– bat haur-literaturan zehar ideologia agertuz
2. Ideologia Euskal Herriko HGL-n
3. Globalizazioa, masen kultura eta kontsumismoa
4. Irudien bidezko mezuak eta haien ideologia.
5. Joera literarioak

3. GAIA – Egile eta obra garrantzitsuak

- 3.1. Saritutakoak eta kanonaren inguruko eztabaidak.
- 3.2. Itzulpena eta Haur eta Gazte literatura
- 3.3. Corpus kanonikoa
- 3.4. Azterketaren emaitzak

4. GAIA – Haur-literatura, curriculuma eta euskal kultura

- 4.1. HL euskal curriculumean
- 4.2. Haur literatura eta euskal kultura

LITERATURA TAILERRAK

Literatura-testuen ekoizpena; literatura sortzeko baliabideak; testu narratibo eta poetikoak ekoizteko bideak; sortutako testuak baloratzeko irizpideak.

Irakasgaien gaitasunak:

LITERATURA TAILERRAK	GAIT./MAILA				
	1	2	3	4	5
Irakasgaien gaitasunak					
1. Irakurzaletasuna sustatzea eta idaztera animatzea	X		X		
2. Literatura-prestakuntza jasotzea eta haur literatura ezagutzea		X		X	X
3. Hizkuntzak ikasteko egoerei eraginkortasunez ekitea, kultura eta hizkuntza anitzeko testuinguruetan. Eskola curriculumean jasotako jabari zientifiko eta kultural anitzeko testuen irakurzaletasuna eta iruzkin kritikoa			X		X

sustatzea					
4. Ikasgelako praktikei buruz hausnartzea, irakasleen lana hobetzeko. Bakarka eta lankidetzan ikasteko ohiturak eta abileziak eskuratzea, eta horiek ikasleen artean sustatzea	X	X		X	

Irakasgaian zehar landuko diren gaiak:

1. Rodariren proposamenak.
2. OULIPO: literaturaren desakralizazioa. Eleberriaren osagaiak.
3. Grafein: idazketaren demokratizazioa.
4. Poesia lantegia.

IRAKURKETA LANTEGIA

Haur eta gazte literaturako obrak aztertzeko ereduak; obra kanonikoen irakurketa-lantegia; obra ez-kanonikoek irakurketa-lantegia; beste irakurketa-lantegi mota batzuk.

Irakasgaiko gaitasunak:

IRAKURKETA LANTEGIA	GAIT./MAILA				
	1	2	3	4	5
Irakasgaiko gaitasunak					
1. Irakurzaletasuna sustatzea eta idaztera animatzea	X		X		
2. Literatura-prestakuntza jasotzea eta haur literatura ezagutzea		X		X	X
3. Hizkuntzak ikasteko egoerei eraginkortasunez ekitea, kultura eta hizkuntza anitzeko testuinguruetan. Eskola curriculumean jasotako jabari zientifiko eta kultural anitzeko testuen irakurzaletasuna eta iruzkin kritikoa sustatzea.			X		X
4. Ikasgelako praktikei buruz hausnartzea, irakasleen lana hobetzeko. Bakarka eta lankidetzan ikasteko ohiturak eta abileziak eskuratzea, eta ikasleen artea sustatzea.	X	X		X	
5. Ikasgelako elkarrekintza-prozesuak ezagutzea.					

Irakasgaian zehar landuko diren gaiak:

1. Introducción. La lectura en la Escuela.
2. Funciones del Taller de Lectura. Marco teórico.
3. El taller de literatura para profesores: la literatura canónica y la selección del canon.
4. El taller de lectura escolar.
5. El taller de lectura para padres y madres: la literatura no canónica.
6. La lectura dialógica. Propuestas y experiencias.
7. La biblioteca de aula.

HAUR ANTZERKIA ETA DRAMATIZAZIOA

Antzerkia eta haurra: oinarrizko kontzeptuak: jolas sinbolikoa, jolas dramatikoak, haur antzerkia, antzerkia eta hezkuntza; euskal literatura dramatikoak; haurrentzako antzerkia; adierazpenerako testuingurua eta egoeraren pedagogia; gidoi dramatikoak; teknika eszenikoak.

Irakasgaiko gaitasunak:

HAUR ANTZERKIA ETA DRAMATIZAZIOA	GAIT./MAILA				
	1	2	3	4	5
Irakasgaiko gaitasunak					
1. Kideekin eta helduekin izandako interakzioaren dimentsio pedagogikoa ezagutzea, eta talde-jardueren parte-hartzea, lankidetzaren eta banakako esfortzua sustatzea	X		X		
2. Irakurzaletasuna sustatzea eta idaztera animatzea		X		X	X
3. Literatura-prestakuntza jasotzea eta haur literatura ezagutzea			X		X
4. Antzerkia literatura ezagutzeko, lantzeko eta horretan zaletzeko metodologia gisa					

Irakasgaiaren zehar landuko diren gaiak:

- 1) Oinarrizko kontzeptuak argituz
- 2) Haurrentzako antzerkia gurean eta munduan
- 3) Haurrak antzezle: teknikak eta inprobisazioa

4) Gidoi dramatikoaren idazketa eta antzezlanaren prestaketa

ESKOLA-LIBURUTEGIA ETA IRAKURZALETASUNA

Eskola-liburutegia eta gelako liburutegia; irakurzaletzeko bideak; ludikotasunetik irakurketara.

Irakasgaiko gaitasunak:

ESKOLA-LIBURUTEGIA ETA IRAKURZALETASUNA	GAIT./MAILA				
	1	2	3	4	5
Irakasgaiko gaitasunak					
1. Lankidetzaren sustatzea, eta baita bakarkako lana eta esfortzua ere	X		X		
2. Ikasketa-guneak diseinatzea eta arautzea aniztasun-testuinguruetan, hiritarren prestakuntzaren balioak osatzen dituzten berdintasun-generoari zuzentasunari eta giza eskubideekiko errespetuari erantzunez		X		X	X
3. Lehen hezkuntzako eskolen antolakuntza eta funtzionamendurako jardura anitzak ezagutzea. Tutoretza eta orientazio funtzioak betetzea ikasleekin eta haien familiarekin, eta ikasle bakoitzaren hezkuntza-behar bereziei erantzutea. Irakaskuntza hobetuz joan behar dela onartzea, eta aldaketa zientifiko, pedagogiko eta sozialetara egokitu behar dela			X		X
4. Irakurzaletasuna sustatzea eta idaztera animatzea	X	X		X	
5. Literatura-prestakuntza jasotzea eta haur literatura ezagutzea					

Irakasgaiaren zehar landuko diren gaiak:

1. GAIA.- Eskolako liburutegia. Eskola bateko liburutegi baten sorketa eta funtzionamendua. Liburutegi motak (zentrokoa, gelakoa...). Funtzioak, baldintzak, liburutegiaren erantzukizunak.
2. GAIA.- Irakurketarako animazioa. Irakurzaletasuna sustatzeko teknikak eta jarduerak. Proposamenak, kasuen analisiak. Hainbat jardueren buruketa.
3. GAIA.- Animazioa eta liburutegia. Liburutegia animaziorako proposamen eta jardueren gune legez. Jarduera motak, ezaugarriak, Haur edo Lehen Hezkuntzako etapen arabeko helburuak.

5. MINORREKO DIZIPLINARTEKO LANA

Minorreko Diziplinarreko Lanak elkarrekintzan jarriko ditu irakasgai bakoitzeko ezagutzak gai jakin baten inguruan lan egiteko. Haur eta gazte literaturako egile edo obra esanguratsuak hartuta, minorreko irakasgai bakoitzean jasotako konpetentziak aplikatuko dituzte ikasleek. Horrela, ikasgai bakoitzean landuko dute lanaren arlo bat, modu jarraituan, Minorreko Diziplinarreko Lana osatuz. Hori bi ardatzetan gauzatuko da; batetik, lanaren aurkezpena urrats ezberdinetan eginez (ikus 3. orrialdeko kronograma); bestetik, edukiak elkarren segida gisa antolatuz. Beraz, lanak osotasun eta koherentzia handiagoa izango du ikasgai ezberdinetan ikasitakoa txertatzeari begira.

Minorreko lana egiteko abiapuntua edo gaia: **Herri ipuinak eta gaurkotutako bertsoak** izango da.

Taldeak: 5-6 laguneko taldeak osatuko dira ikasturte hasieran.

Lanen aurkezpenak:

Minorreko lanen aurkezpenak taldeka egingo dira, ikasturtean zehar banatutako 3 unetan. Lehenik eta behin, 5. astean (ikus kronograma) lanaren aukeraketa egingo da, “Talleres de Lectura” ikasgaiaren egindakoan oinarrituta. Ondoren, 23.astean (ikus kronograma) “Gaur egungo haur eta gazte literatura” eta “Liburutegiak eta irakurzaletasuna” irakasgaietako aurkezpenak egingo dira klasearen aurrean. Azkenik, 25. astean, azken astean (ikus kronograma), ikasleek antzezlanak egingo dute gelakideen eta irakasleen aurrean. Antzezpen horrek zenbait literatura testu barnebilduko ditu, eta ondorioz, “Haur Antzerkia eta Dramatizazioa” eta “Literatura Tailerrak” ikasgaietan landutakoa bateratzeko balio izango du.

6. JARDUERA OSAGARRIAK

Minorreko jarduera osagarri gisa, urtero hainbat irakasle eta aditu gonbidatzen ditugu ikasleekin solasteko.

1. Ipuin kontalari baten hitzaldia: Beatriz Egizabal
2. Patxi Zubizarreta idazlearen hitzaldia
3. Karla Fernandez de Gamboa irakaslearen hitzaldia
4. Tolosako TOPIC txotxongiloen museora txangoa
5. Gasteizko Liburutegietara bisita gidatuak
6. Gasteizko Liburutegi batean haurrentzako irakurraldietan parte hartzea

7. MINORREKO HIZKUNTZAZ

Eskola-liburutegia eta irakurzaletasuna minorreko lan-hizkuntza nagusia euskara izango da. Jarduera praktikoa gehien-gehienak euskaraz garatuko dira: idazlanak, solasaldia, eztabaidak, ahozko aurkezpenak, etab. Hori dela eta, minor honetan matrikulatzen diren ikasleek gutxienez B2 maila izan beharko dute.

8. MODULUKO BIBLIOGRAFIA PROPOSAMENA

- ALONSO DE SANTOS, José Luis. (2007). *Manual de teoría y práctica teatral*. Castalia: Madril.
- ANGOLOTI, Carlos. (1990). *Cómics, títeres y teatro de sombras. Tres formas plásticas de contar historias*. Madril: Ediciones de la Torre
- CERVERA, Juan (1984) *Cómo practicar la dramatización con niños de 4 a 14 años*. Madril: Cíncel
- COLOMER, Teresa (2005). *Siete llaves para valorar las historias infantiles*. Madril: Papeles de la fundación Germán Sánchez Ruipérez.
- DELMIRO COTO, Benigno. 1994. "Los talleres literarios (historia y propuestas)" in Lomas, C. *La enseñanza de la lengua y el aprendizaje de la comunicación*. Trea/CEP: Gijón.
- DELMIRO COTO, Benigno. 2002. *La escritura creativa en las aulas. En torno a los talleres literarios*. GRAO: Barcelona.
- EQUIPO PEONZA (1995). *ABC diario de la animación a la lectura*. Madrid: Asociación Española de amigos del Libro Infantil y Juvenil.
- ETXANIZ, Xabier (1987). *Euskal haur eta gazte literaturaren historia*. Iruñea: Pamiela.
- ETXEBERRIA, Guillermo. (2001). *Antzerkia eta dramatizazioa*. UE : Zg.
- GARRALON, Ana (2001) *Historia portátil de la literatura infantil*. Madrid: Anaya.

- IGERABIDE, Juan Kruz (1993): *Bularretik, mintzora. Haurra, ahozketasuna eta Literatura*. Erein.
- KOHAN, Silvia Adela. 1992. *Consignas para un joven escritor*. Octaedro. Barcelona.
- KOHAN, Silvia Adela. 2001. *Crear una novela. Manual básico para escritores no profesionales (todavía)*. Espasa: Madrid.
- KORTAZAR, Jon. et al. (2011) *Egungo euskal haur eta gazte literaturaren historia*. Bilbo: UPV/EHU
- LLUCH, Gemma (2010). *Cómo seleccionar libros para niños y jóvenes*. Gijón: Trea.
- LLUCH, Gemma (2003) *Análisis de narrativas infantiles y juveniles*. Cuenca: Universidad Castilla-La Mancha.
- LOPEZ GASENI, Manu, Xabier ETXANIZ (2005) *90eko hamarkadako Euskal haur eta gazte literatura*, Iruñea: Pamiela.
- MATA, Juan (2004). *Cómo mirar a la luna. Confesiones a una maestra sobre la información del lector*. GRAO, Barcelona.
- MATA, Juan (2009). *Animación a la lectura. 10 ideas clave*. GRAO, Barcelona.
- MORENO, Víctor (2004). *Lectores competentes*. Madrid: Anaya
- MORENO, Víctor. 1994. *El juego poético en la escuela*. Pamiela: Iruñea.
- QUENEAU, Raimond. (2007) [1947]. *Estilo ariketak*. Igela: Iruñea. Itzultz. Xabier Olarra.
- TEJERINA, Isabel. (1994) *Dramatización y teatro infantil*. Madril: Siglo XXI.